

# MUTILL-ZAR



## IPUIÑA

Artzeko ustez egazti andia,  
Ez ichi galtzen eskuko choria.

Jose, mutill zar bere kulpaz aurkitzen zan,  
Pobreagaz ezkondu zerren nai ez eban;  
Bizi zan echearen zalako jaubea,  
Nai eban dote asko eukana andrea;  
Diruduna ez eze, nai eban langiña,  
Baita izan zedilla zolia ta fiña;  
Bigun, leyal, sotill ta umill ta apatza,<sup>1</sup>  
Itz baten esateko on ta aberatsa;  
Azkenez ez eban nai echean errana,  
Izan zedin guraso zarrentzat arrana;<sup>2</sup>  
Ezpada konpondurik asarrerik baga,  
Izan balitz legeche echeko alaba;  
Entregaurik zar biai ekarren dotea,  
Bizi modu eder bat laurak egitea.

. . . . .  
Orretara oi eban Josek ames asko,  
Baña ustel urteten ziran beretzako,  
Zergaitik andia zan ak eukan faltea,  
Alan etzan millagro ori gertatzea;  
Jayokeratik eukan begi bat okerra,

(1) Apatza=afable.—(2) arrana=zinzerria.

Zuzena gerran eutsan baleak atera;  
 Zentzuk gaitik arpegiz Jose zan ichusi,  
 Naiz da begi okerraz naikoa ikusi;  
 ¡Zeñbat baño geyago nai eban bestea,  
 kristalezko bategaz disimuletea!  
 Baña zelan ez eukan tokia egoki  
 Jarri ezinda eutsan bertan bera ichi;  
 Orregaitik Josegaz iñor aberatsik  
 Errian ez egoan, ezkonduko zanik;  
 Alperrik pauso asko berak eban emon,  
 Gaztezero guztia atan jua jakon;  
 Amabost urte santu eta oso osoak,  
 Pasau zituan lotsaz artzen ezezkoak;  
 Eta zitualako berrogei lepuan,  
 Bizarra zuritua erdia mosuan;  
 Azkenez gobiernu charra zelan eukan,  
 Amar urte geiago iruditzen eban.

Orregaitik mutill zar, eutsen danak deitzen  
 Arpegia eutsela orregaz gorritzen;  
 Ez da arritzekoa bizitea ala,  
 Larogei urtekoa eukalako ama;  
 Eta bera zalako aiñ zantar, zitala,  
 Neskacharik echean gura ez ebana;  
 Jose, aurkietan zan zeñbat maizter<sup>1</sup> baño,  
 Echejauna izanik askoz okerrago;  
 Lan asko, charco janda, jantzita ez ondo,  
 Neu enintzan mutill zar a legez egongo;  
 Bai, ekarzan gaur praka zar zar zulatuak,  
 Biar modu charrean berak konponduak;  
 Alkondara zurian bardin botoi baltza,  
 Josek garbiro eukan mutill zarren antza;  
 Ez egoan ibilli zetan itanduten,  
 Bere tayuan eban zer zan azalduten;  
 Bere artean barriz ¡o! zeñbat alditan!  
 Ibillten zan bakarrik onelan berbetan!  
 «Euki dot eskuetan sarritan choria,

(1) Maizterra-inquilino.

Naiz da ez izan neuk nai besteko andia;  
 Au da enebalako iñoz nai pobrea,  
 Orain mutill zar naz ta biar agurea;  
 Eta aguratzean ¿zer jat gertatuko?  
 Iñok bere enau ni ikusi gurako;  
 Orduan izango da ¡nirea tristea!  
 Deituko deustelako *mutill agurea*;  
 Eta gaur bizi banaz ganorarik baga,  
 ¿Zer izango da nigaz zartzaroan bada?  
 Mutill zar nazalako banaz barregarri,  
 ¿Ez dot izan bearko gero negargarri?»

Orra Jose zetara mutill zar zan bizi,  
 Bere erruz naikoa eginda ikusi;  
 Zorioneko edo gaiztoko dirua,  
 Gichiago maite dau askok Jaungoikua  
 Geiago dabelako zeñbatek sinistzen,  
 Zoriontasun dana an dala aurkitzen;  
 Baña diruan balitz utsik zoriona,  
 ¿Zelan bizi alegre pobre dan gizona?

Alan bere inchaurre austeko arria,  
 Aurkitu oi dalako nun nai egokia;  
 Josentzat oraindio bazan andrageya,  
 Bete ez arren diruz eukan egarria;  
 Zeñi deituten eutsen Juanacho Erlea,  
 Fintasunez berakatz<sup>1</sup> bardiñik bagea;  
 Gañera kristiñau on, zoli ta noblea;  
 Aberats asko baño Josentzat ohea;  
 Noren aita ta amak barriz zelan eben,  
 Jose mutill ondraztat beti ezaututen;  
 Pentsau eben eurentzat suiñ egitea,  
 Juanacho Erleagaz bera ekontzea;  
 Eta alabea zelan beti zan otzana,  
 Egiteko aita ta amaren esana;  
 Ekialako barriz Jose mutill zarrak,  
 Zer nai eben Juanaren aita eta amak;

(1) Berakatz=bachuria.

Mandatucho bat egin ezkeror choria,  
 Esku eskuan eukan naiz izan chikia;  
 Alanche euki oi dauz gure Jaungoikuak,  
 Ordenaurik gizonen estadu moduak;  
 Berak Joseri bere eutsan lagun egin,  
 Ordenauta eukanaz bai, ezkondu zedin;  
 Ara bada, non eta zelan erabagi,  
 Eban Juanacho zala beretzat konbeni,  
 Ara, zelan eutsazan idigi begiak  
 Orañ eskribiduko dodan istoriak.

. . . . .  
 Feriara auzoko Pedro eta bera,  
 Joan zirean baten salbenta ikustera;  
 Pezeta zuri bana arturik echean,  
 Afaria tabernan jateko ustean;  
 Plazara jatsi eta ganauai begira,  
 Luzaro ebiltzala jira eta bira;  
*¡Errifa-errifa!* joian erren bat deituaz,  
 Eskumako besoa goruntza jasuz;  
 Eskuko billetea nori enpleauko,  
 Prediketean ebala onelan ederto.

«Bosteun, bat gichiago ditut bereala,  
 Saldu, eta bat daukat oraindik eiñ baga,  
 Eta beronentzako gaur da suertea,  
 Tontakeria bat da au ez erostea;  
 Ea, norbait alimau bedi artutera,  
 Osteruntzean ni neu, noa jaubetzera;  
 Eta gero alajak neuretzat guztiak,  
 Izango dira danak andi ta chikiak;  
 Alperrik artuko dau askok sentimentu,  
 Neu izango naz baña, poz eta kontentu;  
 Peseta bategaitik ez da, ez chancea,  
 Millaka erlen gauzak puntuan artzea;  
 Amabi kuchillo ta amabi kollara,  
 Amabi lauorteko guztiak zidarra;  
 Salako erloju bat, sei poltsillokoak,  
 Baña euren artean iru urrezkoak;  
 Baita diamantezko belarritakoak,

Erregiñak daukazan baño obagoak!...»  
 Nor arrapauko alan uluka joiala,  
 Albotik Pedrok urten eutsan bereala  
     —Chocho, obe dok beti eskuan choria,  
 Gordetea seguru naiz izan chikia;  
 Largau bagarik egan doiala aidean,  
 Andiagoa dan bar artzeko ustean;  
 Ire peliguruan sartu egin bage,  
 Poltsan obeto juat pesetea gorde;  
 Norentzako alajak urtengo direan,  
 ¿Nok jakik suertea ikusi artean?  
 Ori dakiana dok gure Jaungoikua,  
 Ez, i lako berbari eta barritsua;  
 Neure peseteagaz apaldu tabernan,  
 Obeto juat egin bapo illunkeran;  
 Baña Jose zelan zan erreza sinistzen,  
 Ondasunak larregi ebana poztuten;  
 Pesetea poltsatik egiñik atera,  
 Billetearen truke emoten dau bera;  
 Baña ¿beretzat izan ete ziran prendak,  
 Kantetan eban legez kalean errenak?  
 Arek bat esan eta, urten beste batek,  
 Eginda, artu eban petardua Josek;  
 Fortuna jausi jakon lumero biari,  
 Bosteunegaz erratu iya bereari;  
 Orduan esan eban: «Pedrok errazoia,  
 Euki dau, gordetea poltsan pesetia;  
 Egingo dabelako apaldu tabernan,  
 Ura bearko dot nik iturrian edan;  
 Azkenez esan eban zizpuru artean:  
 Geiago nekau baga, aberats atzean,  
 Obe dot emaztetzat Juanacho Erlea,  
 Pobre on bat dalako neuretzat artzea;  
 Ez dakidan gertatu errifeaz legez,  
 Pesetea galduta predarik artu ez.»

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1896-ko urtean.

